

EUSKARAZ ETA KITTO?.— Iragan udan Joshua Fischman eta Juan Cobarrubias soziolinguistek Donostian hitzaldi ondorean prentsara egin zituzten azalpenekin zenbait jende txunditurik gelditu zen; baina gu ez.

Euskararen erabileraz ari ziren: Euskara lanean erabili behar omen; euskarak ez duela hedapenik ez garapenik lider politikoez erabiltzen ez badute.

Hor dago gakoa!

Herbesteko soziolinguistek geure barneko zauria erakutsi digute. Eta, erdaraz euskararen alde mintzatzen diren politikoez jakin bezate zuriketa guziak baino hobea dela mintzatzearen pragmatika.

Euskarak aspalditik dakarren perila, euskararen alde erdaraz mintzatzea. Hamaseigarren mendearren haseran Ziburuko Etxeberriren lanak goretsiz salatu zuen jokaera hori Klaberia apezak<sup>1</sup>.

Errazena euskararen alde hitz egitea da; baina euskara ikasi nahi duenarentzat, nonbait, ez dago bide errazik. Lotsagarria ez ote aber-tzale kopurua, botoen arabera, hain handia izanik euskaldunak hain guti izatea? Hizkuntzaren arazoetan, bereziki gure egoerari begiratuz, intentzio onak eta ahuntzaren gauerdiko eztula, berdinak dira.

Baina, gure ahulezian bada besterik ere: dakitenek ez erabiltzearena.

---

1.- Ikus 1954ko *Egan* 2-4 zenbakiaren 24. orrialdean Klaberia apezaren hiru bertsoak transkribaturik.

Zeren, euskarak, den gutian ere, erabilera bizkortzeaz beste aurpegi bat erakutsiko luke.

Arazo hauek gogoratzean, Mikel Larrañaga gure herrian alkate zela eman zuen bandoa datorkit oroitzapenera:

### **BANDOA**

*De parte del Sr. Alcalde de esta Villa Armera se hace saber a todos los ciudadanos:*

*Que no es el euskara, como antaño, lengua mayoritariamente utilizada en esta población por lo que es preciso esforzarse en su uso. Y como no es justo pedir a otros que aprendan nuestro idioma cuando quienes lo saben no lo utilizan corrientemente, dei eta dehiadar egiten zaio euskaldun jendeari euskara gure hizkuntza gaurdanik bertatik erabiltzera etxean zein jendaurrean, Eibar herri euskalduna izatea lortu arte arrazoizko epe batetan. Ez da atxakiarik ez mintzatzeko ezagutzen eta maite den hizkuntzaz: Horregatik aldarrikatzen dugu: EUSKARAZ ETA KITTO!*

EGUTEGI TXARTEL BITXIA.— Euskarazko egutegiak goraka datoz azken urteotan, lehen euskarari muxin egiten zioten erakunde, elkarte eta entpresak ere bide hortara datoz eta hori ez da txarra gure hizkuntzaren zabalkunderako. Egutegiak ere era askotakoak, mahairako nahiz patrillarako agenda horietatik hasi eta horman jartzekoak arte bada orain zer hauta. 1987-rakoen arteatik patrillarako atera den txartel bitxiak harritu gaitu. Zazpi eskualdeen eskudo gainean EUSKAL HERRIA dakarrena, eta eskudo ondoan Orixe zenaren bertsoak. Orixerenak?

Txartelaren bestaldetik, jakina, egutegia bera, gainean honako iragarria duela “ 1987 Euskararik gabe ez da Euskal Herririk”, aspalditik errepikatuz datorren esaldia eta geroan ere errepikatzen